



Zuzendaritza

Aitor Onaindia Bereziartua

BASOA FUNDAZIOA

Zuzendari teknikoa

Euskal nekazari-familia batetik etorrira, txikitatik nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzan aritu izan da. Hainbat urte atzerriko unibertsitate eta erakundeetan (Frantzia eta Txile) mendi-ingeniari gisa ikasten eta lanean aritu ondoren, azken 19 urteak Euskadiko baso-kudeaketa iraunkorraren garapenean murgilduta daramatza.

BASOA FUNDAZIOAn orain 10 urte barneratu zenetik, orain zuzendari tekniko modura, basozientziaren dibulgazioan eta basoek gizarteari eskaintzen dizkieten hainbat zerbitzu ekosistemikoak sustatu eta konpentsatzeko proiektuak gauzatzen diardu.



Leire Salaberria Isasi

USSE

Zuzendari kudeatzailea

Prestakuntzaz nazioarteko abokatu merkantilista izan arren, baso tradizioko familia batekoa da, eta, 2014az geroztik, Hego Europako Basogile Elkarteko (**USSE**) Zuzendari-Kudeatzailea da, basojabe pribatuen nazioarteko erakundea, beren jarduera nagusia Europako eta nazioarteko basopolitika definitzen laguntzea duena, nazioarteko foro garrantzitsuetan jarrera, ordezkaritza eta sektoreen arteko elkarrizketaren bidez, Europako hegoaldeko basoen ikuspegia eta eskariak erabakiforoetan azalduz, —Europako Batasuna, FOREST EUROPE, Nazio Batuak, COFO-FAO—, baita sektoreko beste erakunde batzuekiko elkarrizketaren eta lankidetzaren bidez ere.

Matrikula: www.uik.eus

Informazioa gehiago

UDA IKASTAROAK / CURSOS DE VERANO / SUMMER COURSES

Miramar Jauregia - Mirakontxa Pasealekua - 4820007 Donostia /San Sebastián
T.: 943 219511 - info@uik.es - www.uik.es

Antolakuntza Batzordea / Comité Organizador / Organising Committee

Fundación
BBVA



Hizlariak

Paulo Fernandes

Irakaslea

Trás-os-Montes e Alto Douroko Unibertsitatean (**UTAD**)

Rosa María Canals

Irakasle titularra

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (**UPNA**)

Alba Márquez Torres

Doktoratu ikerlaria

BC3 Research

Celso Coco Megía

Gaztela eta Leongo Juntako Baso Ingenieri

Tekniko eta *Copernicus* Akademiako kide.

Asier Larrañaga Otxoa de Egileor

Generalitateko Suhiltzaileen Inspektoreordea

Baso Ekintzen Errefortzu Taldea (**GRAF**)

Ferran Dalmau Rovira

Zuzendaria

Medi XXI GSA

Victor Resco de Dios

Baso Ingeniaritzako irakaslea

Lleidako unibertsitatean (**Udl**)

Cristina Montiel Medina

Geografiako katedraduna

Madrileko Unibertsitate Konplutensean (**UCM**)



BASO-SUTEAK: Nola egin aurre ?

Uztailak 10 – 11



Kodea: **Z10-23**

Ekintza mota: **Uda ikastaroa**

Arloak: **Zientzia eta teknologia / Gizartea**

Kokapena: **Miramar jauregia**

Hizkuntza: **Gaztelera**

Balio akademikoa: **20 ordu**

Beste babesle batzuk:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

Azalpena

Udako ikastaro hau presentziazkoa izanen da. Baina, nahiago izanez gero, on line zuzenean ere parte hartzeko aukera dago.

Gizakiak ongi ezagutzen duen elementua izan da sua historikoki. Lagundu egin digu, eta lagundu egin diogu, hura behar bezala erabili ahal izateko eta gure gizarteentzako onura amaigabeak lortzeko. Ez da puntuala eta tokikoa den zerbait, baizik eta gure historia osora, mundu osora eta gizarte guztietara hedatua dagoena.

Era berean, suak sor ditzakeen suteak ohikoak izan dira lurreko ekosistema naturaletan. Landarez osatutako guztia sutan jartzeko moduan egon daiteke, batez ere baso-ekosistemetan, materialugarri kontzentrazio handia baitakarte. Beraz, inguruko paisaia, landare formazioa edozein dela ere, baina batez ere basoz osatuta badago, sugarren menpeko bihur daiteke, eta, horren ondorioz, baso-suteak elementu erabakigarria dira paisaiaren eta sistema naturalen eraketan eta garapenean.

Baina suaren eta suteen eragina paisaiaren edo ekosistemaren konposizio hutsetik haratago doa. Gure azpiegitura, gure eraikin, gure aisialdi-eremu, gure hornikuntza-iturri ... elementu honek eta gertaera horiek gure gizartearen bizitza eta garapena kaltetu eta larritu egin ditzakete. Suak eta suteek gure garapena baldintzatu dezakete, edota tragikoki aztoratu baita.

Azken urteotako joerak ez du itxaropen onik ematen. Munduan, oro har, eta Europako hegoaldean, bereziki, baso-sute izugarriak izaten dira urtero, gero eta bortitzagoak eta ez hain kontrolagarriak gertatuaz. Iaz bakarrik, Europako hego-mendebaldean, urtean erretako batez besteko azalera laukoiztu dute suteek. Gainera, suteek gogortasun handia izan zuten, bai erregaiaren idortasunagatik, bai suaren beraren jarduerarekin lotutako meteorologiagatik. Egoera etsigarri horretan, Euskadi, uharte txiki bat bezalakoa zela bazidurien ere, hemendik aurrera, inguruko eskualde mugakideek bizi dituzten antzeko egoeren beldur izan daiteke.

Hala ere, gure gizarteak gero eta kaletarragoak dira, ez dute suaren antzinako erabilera ezagutzen eta, oro har, basoetako suteetatik kanpo bizi dira. Handi eta kontrolik gabeko bihurtzen direnean sortzen zaien gaia da. Berandu denean eta ia ihesbiderik ez dagoenean.

Horregatik, bi alderdi hauetan sakondu nahi dugu: sua, naturaren berezko elementu gisa, eta basoko suteak, su horren ondorio arriskutsu gisa.

Zer dakigu suaz? nola jokutzen du? nola aztertzen da?

Eta zer dakigu suteez? nola iraungitzen dira? nola prebenitzen dira?

Ezagutza zientifiko eta teknikoaren hainbat arlo aztertuko ditugu, hain antzinakoa den baina gaurkotasun handia duen gai honetan sakondu ahal izateko. Horiek aztertu eta eztabaidatzeko, maila goreneko zientzialariak eta kudeatzaileak izango ditugu, ezagutza areagotuko digutenak eta kontzeptu beroak eskainiko dizkigutenak.

Helburuak

Sua elementuaren ezagutza-arloak aztertzea, haren izaera hobeto ulertzeko.

Baso-suteei buruzko zenbait alderdi aztertzea, suteen eragina eta suteei aurre egiteko modua ulertzeko.

Egitaraua

1. EGUNA / Uztailak 10

09:00 - 09:15

Inaugurazio instituzionala
Juan Ramon Murua
Basoa Fundazioko lehendakaria

09:15 - 10:00

Suaren ekologia: sua paisaian, mekanismoak eta rolak.
Paulo Fernandes
UTAD

10:00 - 10:45

Suaren giza erabilera: perturbazio naturalen erregimenak berreskuratuz, paisaia erresilienteak sortzeko. Suaren eta belarjalearen gaineko gogoetak paisaiak sortzean.
Rosa María Canals
UPNA

10:45 - 11:15

Geldiunea

11:15 - 12:00

Suaren modelizazioa: eredu monolitikoetatik, semantikaren bidez, eredu integratuetara.
Alba Márquez Torres
BC3 Research

12:00 - 12:45

Suaren jarraipena: baso suteen satellite bidezko detekzioa eta Europako Lurra Behatzeko Programaren (Copernicus) Sentinel-2 irudien bidezko azterketa.
Celso Coco Megía
Gaztela eta Leongo Junta eta Copernicus Akademia

12:45 - 13:50

Sua ezagutzea.
Mahai-ingurua aurreko hizlarien artean

13:50 - 14:00

Jardunaldiaren laburpena

2. EGUNA / Uztailak 11

09:15 - 10:00

Basoetako suteak itzaltzea: irteerarik gabeko bidea?
Asier Larrañaga Otxoa de Egileor
GRAF

10:00 - 10:45

Suteen prebentzioa: basoetako sute handien prebentzioa babes zibileko larrialdi gisa. Eta orain zer egiten dugu?
Ferran Dalmau Rovira
Medi XXI GSA

10:45 - 11:15

Geldiunea

11:15 - 12:00

Klima-aldaketaren aurreko egokitzapena: itzali ezin ditugun suteen aroa. Megainsuteak Antropozenoan.
Victor Resco de Dios
UdL

12:00 - 12:45

Sute-arriskuaz kontzientziaztea: arriskuaren kontzientzia aldatu al da?
Cristina Montiel Molina
UCM

12:45 - 13:50

Suteei aurre egitea.
Mahai-ingurua aurreko hizlarien artean

13:50 - 14:00

Jardunaldiaren laburpena